

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1189

728/2022 EBAZPENA, otsailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren epaimahai kalifikatzailea izendatzen den Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko kategorietarako/lanpostu funtzionaletarako (2021eko azaroko zikloa, azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpenaren I. eranskinean jasotako kategoriei dagokiena, eta 2022. eta 2023. urteetan argitaratzen diren Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko kategoria guztietako destinoak eskaintzeko zikloak).

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren (2019ko abenduaren 24ko EHAA 244. zk.).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako (2021eko azaroaren 8ko EHAA 221. zk.).

Era berean, aurreikusita dago 2022. eta 2023. urteetan zehar Fakultatibo Mediko eta Teknikoen epaimahaiaren integratutako zenbait kategoriaren / lanpostu funtzionalen Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egitea, eta kategoria horietako destinoen eskaintzak argitaratzea adierazitako urteetako apirilera eta urriko zikloetan.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloko eskaintza argitaratu zen, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako. Ebazpen hori, hain zuzen, 2021eko apirilaren 30ean argitaratu zen (EHAA 238. zk.), eta abenduaren 14ko 570/2021 Ebazpenaren bidez aldatu (abenduaren 28ko EHAA).

2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 10.1. oinarriarekin eta arestian aipatutako urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenean ezarritako irizpideekin bat etorritik, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak Lekualdatze-lehiaketa kalifikatuko duen epaimahaia izendatuko du, eta denboraldi jakin baterako izendapena ezarri ahalko du, epaimahai horrek hurrengo esleipen-prozesuetan egin ahal izan ditzan baremazio- eta balorazio-zereginak.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenaren bidez, zenbait alderdi ezartzen dira Osakidetzako Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren epaimahaietako kideak izendatzeko, eta zehazten da epaimahai batek bilduko dituela Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko kategoriak.

Izendapen hau aipatutako ebazpenean ezarritako zozketaren ondoren egiten da, eta hautatuak izan diren profesionalak alegatzen dituzten abstenitzeko eta errekusatzeko arrazoiak eta dispen-tsa eskatzeko arrazoiak aurkezteko emandako epea igaro ondoren.

Horregatik, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Epaimahai kalifikatzailea izendatzea honako hauetarako: Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko kategorien / lanpostu funtzionalen Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako, baita 2022. eta 2023. urteetan argitaratzen diren Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldean integratutako kategorien Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko destinoen eskaintza-zikloetarako ere. Epaimahai hori ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 10.1. apartatua eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenaren lehenengo apartatua aplikatuz, izendapen hori 2021eko azaroko zikloa eta 2022. eta 2023. urteetan argitaratzen diren destinoen eskaintza-zikloak amaitu arte luzatuko da, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da.

Izendapena luzatzea erabakitzen bada, Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez egingo da.

Bigarrena.– Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzako Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 18a.

Osakidetzako Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

ERANSKINA

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA FAKULTATIBO MEDIKO ETA TEKNIKOAK

Epaimahaiburua:

- Titularra: Ana Belén Maillo Arana.
- Ordezkoa: Gaizka Mallabiabarrena Ormaechea.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Beatriz de Lierni Macías Murelaga.
- Ordezkoa: Juan Manuel Marín Mesa.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Francisco Javier Madruga Carpintero.
- Ordezkoa: Amaia Madariaga Zabala.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Itziar Madariaga de la Fuente.
- Ordezkoa: José Ignacio Martín Gómez.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Jesús Ignacio Marcuerquiaga Arriaga.
- Ordezkoa: María Mercedes Maiztegui Gorostiza.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: Leyre Madariaga Domínguez.
- Ordezkoa: Juan Manuel Mañe Martínez.

Idazkaria:

- Titularra: José Angel Martín Martín.
- Ordezkoa: Ana Luisa Martínez Alonso.